NERABEENTZAKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- HELBURUA

Eskoriatzako gazteria politikaren xede nagusia da herriko haurrei, nerabeei eta gazteei euren haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea etapa bakoitzak dituen bi alderditan:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizitzako etapa gisa.
- Heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen bizitzako etapa gisa.

Horiek horrela, eta xede horri erantzun nahian, plegu honen helburua da Eskoriatzako nerabeentzako zerbitzua kudeatzeko baldintza teknikoak arautzea Gipuzkoako Haur eta Gazteak Sustatzeko Sistemaren marko barruan. Horretarako, lan baldintza duinak, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna eta ingurumen eragin txikiagoa bermatuko duten metodo eta praktikak erabili beharko dira.

2.- HARTZAILEAK

Nerabeen zerbitzua (hemendik aurrera gaztelekua) 13-17 urte bitarteko (DBH1-Batxilergoa) Eskoriatzako nerabe guztiei zuzenduta dago, eta zeharkako hartzaileak izango dira nerabeen heziketan ardura duten beste eragileak (gurasoak, irakasleak, …).

3.- ORDUTEGIA

Zerbitzuaren ordutegia behean ageri dena izango da. Esleipedunak bere ordutegi proposamena luza dezake baldin eta erabiltzaileentzat hobea dela adosten bada.

Ostiraletan: 17:00-20:30

Larunbatetan: 16:30-20:30

Igandetan: 16:30-20:30

Ekintza bereziak egiten direnean ordutegia beharren arabera moldatuko da.

4.- EGUTEGIA

Gaztelekua 13 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dago, eta honako egutegia izango du:

1.- Gazteleku zerbitzua: ostiraletan, larunbatetan, igandeetan, San Pedro jaietan, Gabonetako oporretan eta Aste Santuko lehen egunetan eskainiko da. Urtean gutxi gora behera 39 asteburu zabalik edukitzea aurreikusten da. Irailaren 2. asteburuan zabaldu eta ekainaren 3. asteburuan itxiko da ikasturtea. Uztaileko Udaero programa amaitu eta irailaren 2. asteburu arte zerbitzua itxita egongo da.

2.- “Udaero” programa: udako aisia eskaintza berezia izango da, eta uztailean egingo da, bi astetan zehar.

Urtero, enpresa esleipendunak Udalari egutegi eta langileen lan ordutegi proposamen bat aurkeztu beharko dio Udalak onar dezan. Egutegi honek aldaketak izan ditzake, betiere, Udalaren eta zerbitzuaren artean adostuta.

5.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

5.1. Betebehar orokorrak.

Gaztelekuan antolatuko diren ekintza guztiak Udalak zehaztutako helburuetara bideratuta egingo dira. Hona hemen helburuak:

Helburua:
Gaztematikak jaso bezala, nerabeentzako zerbitzua, nerabezaroaz gozatzeko aukera eskaintzeko zerbitzua izateaz gain, nerabeak heldutasunera arrakastaz igarotzeko misioa izango duen zerbitzua da, autonomia, kritikotasuna eta arriskuen kudeaketa sustatuz.

Honek guztiak zera esan nahi du:

1.- Aisialdiaz modu aktiboan, sortzailean, osasungarrian eta ongizate emozionalari lagunduz gozatzea.
Autonomia garatzea eta nork bere burua antolatu eta kudeatzeko gaitasuna lortzea.
2.- Adin bereko kideekin lotura egonkor, atsegin eta erreferentziakoak sortu eta sendotzea.
3.- Gizarteratze harremanak garatzea.
4.- Nerabeen artean euskararen erabilera bultzatzea.

Helburu zehatzak:

1.- Parte hartzea sustatzea zerbitzu barruan zein kanpoan. Nerabezaroari dagokien gaien inguruan erabakitzeko eta parte hartzeko aukerak eskaintzea.
2.- Arriskuen kudeaketa lantzea. Ikt-en erabilera osasuntsua, drogen prebentzioa eta sexu harreman arriskutsuez ohartaraztea, udalaren gazteria zerbitzuarekin koordinatuta eta bere oniritziarekin bat.
3.- Euskal kultura eta euskararen aldeko jarrera sustatzea eta erabilera bultzatzeko bitartekoak jartzea.
4.- Nerabeek aukeratutako zaletasunak sustatzea, sormena lantzea eta ekimenak bultzatzea.
5.- Nerabeekin sare sozialen bidez komunikazio kanal bat zabaltzea. Instagram edo momentuan dagoen zerbitzua aprobetxatuz. Modu honetan, zerbitzura gerturatzen direnekin eta gerturatzen ez direnekin harremanetan egoteko.

5.2. Metodologia

Gaztelekuaren kudeaketa Udalak finkatuta dituen helburuak lortzera bideratuko da. Udalari dagokionez, zerbitzuaren arduraduna gazteria zerbitzua izango da.

Zerbitzu honen kudeaketan bi esparru bereizten dira: alde batetik, nerabeei eskaini beharreko arreta zuzena; eta, bestetik, barne lanak izango direnak (planifikazioa, koordinazioa, ebaluazioa, formazioa…).

Helburu horiek lortzeko Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemak zehaztu dituen sei jarduerez baliatu daiteke. Hona hemen:

a. Informazioa.

Informazioa funtsezko erreminta da nerabeei beste esparru batzuetan eskura dituzten baliabideak eta aukerak berenganatzen laguntzeko. Datu horiek garaiz, behar adinako neurrian, eraginkortasunez eta modu antolatu eta adierazgarrian ematea da helburua.

b. Orientazioa.

Orientazioaren helburua nerabeei dituzten aukerak ezagutzen eta erabakiak hartzen laguntzea da. Laguntza hori puntuala edo jarraia izan daiteke.

c. Bide-laguntza.

Bide-laguntza laguntza eta jarraipen harremana da -nolabaiteko egonkortasuna eta jarraipena duena- nerabeek erabakiak hartzerakoan, ekintzak burutzerakoan eta harremanak egiterakoan. Laguntza horrek pertsona arteko harreman interaktiboa, zuzena eta aurrez aurrekoa eskatzen du; elkarren arteko konfiantzan oinarritutakoa; pertsonalizatua, ezinbestean; nahiz eta taldean ere egin ahal izan.

d. Aisia hezitzailea.

Aisia-hezitzailea nerabeei zuzendutako esku-hartzea da. Ondo pasatzea eta atsegina izatea du helburu, eta era berean, bizitzarako baliagarriak izango diren balioak, jarrera eta gaitasunak garatzea

e. Adierazpenerako eta parte hartzeko bideak.

Adierazpenerako eta parte hartzeko bideak sustatu nahi dira, nerabeentzat parte hartzeko eta adierazteko aukerak sortzea nahi da, nerabeek dituzten iritziak eta proposamenak bideratzeko. Era berean, eurentzako garrantzitsuak diren erabakiak hartu eta, neurri batean, erantzukizunak beren gain hartzea eskatzen du.

Gaur egun nerabeek beraien arteko komunikaziorako erabiltzen duten sistema kontuan hartuz, nerabeen zerbitzuan beharrezkoa da teknologia berriak erabiltzea lan erreminta bezala.

f. Sorkuntzarako eta produkziorako bideak.

Sorkuntzarako eta produkziorako bideen helburu dira nerabeek beren sorkuntza eta produkzio gaitasuna indartu eta bideratzeko jarduerak eta proiektuak garatzeko benetako aukerak sortzea eta dinamizatzea.

5.3. Zehar lerroak

5.3.1. Euskararen erabilera sustatzea.

Nerabezaroa hizkuntza ohiturak definitzeko adin esanguratsua izaten da, eta, beraz, gure helburuak bi izango dira: batetik, nerabeek hizkuntza ohituretan euskararen hautua egin dezatela sustatzea; eta bestetik, euskararen aldeko motibazioa piztea eta euskararen aldeko eragile zuzenak bihurtzea gazteak.

Erabileraren esparruan euskararen eredu informalak zainduko dira bereziki, gazte hizkera pipertsua, bizia eta gaurkoa eskainiz, gazteek euren beharretan inolako zailtasunik gabe, erraztasunez eta gogo onez euskara erabil dezaten. Eginbehar horretan garrantzi berezia hartuko du bertako euskalkiaren eredua eskaintzeak.

Euskara izango da gaztelekuko lan eta zerbitzuko hizkuntza eta horretarako beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile euskaldunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana...

Erabiltzaile bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontuan hartuta, estrategiak inplementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko.

5.3.2. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna.

Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna errealitate bihurtzeko lan egingo du, horretarako berdintasun plana diseinatuko da zerbitzurako.

5.3.3. Inklusioa-integrazioa

Nerabeen artean dagoen aniztasuna kontuan hartuta, zerbitzuak arreta berezia eskainiko die premia bereziak dituzten pertsonei (gizartean zailtasunak dituztenak, urritasun fisikoak, psikikoak edo zentzumenezko ak, jarrera arriskutsuak dituztenak...).

Zerbitzuan hezitzaileek behar bereziren bat duen neraberen bat identifikatuz gero, gazteria teknikariari jakinaraziko zaio, berak dagokion udal zerbitzuaren bitartez bidera dezan.

5.4. Materialak.

Zerbitzuan egin beharreko jardueretarako beharrezko materiala esleipendunaren kontura izango da.

5.5. Barne lana.

Planifikazioa.

Zerbitzu honen kudeaketak, jarduera guztiak planifikatzea eskatzen du, horretarako kontuan hartuz ebaluazioaren ondorioak eta proposamenak. Hiru planifikazio mota landuko dira: hilerokoa, lau hilabetekoa eta urtekoa. Planifikazio horiek guztiak gazteria zerbitzuarekin diseinatu beharko dira.

Ebaluazioa

Zerbitzua hainbat unetan eta modutara ebaluatuko da:

Ebaluazio jarraitua: asistentzia datuak, ekintzetan parte hartze datuak eta kuadrillen ezaugarri fitxak, hizkuntza erabilerak, kopuruak…

Lau hilabeteko ebaluazioa: urtean zehar gutxienez 3 bilera aurreikusten dira hezitzaile taldearen eta gazteria teknikarian artean. Ebaluazio bilera horietan aurreko lauhilekoaren txostena aurkeztuko da balorazio batekin batera, eta hurrengo lauhilekorako proposaturiko programak aztertu eta baloratuko dira. Azken ebaluazioarekin batera gastuen balantzea erantsiko da, eta baita hobekuntza proposamenak ere.

Erabiltzaileekin ebaluazio partehartzailea. Zerbitzuan, urtean birritan, nerabeekin ebaluazio parte hartzailea egingo da. Bertan jasotzen diren ekarpenak eta aldaketak planifikazioan txertatu eta berriro ere ebaluatzea eskatuko da.

Koordinazioa

Zerbitzuaren kudeaketan honako koordinazio lanak aurreikusten dira:

Hezitzaileen taldeko barne koordinazioa:

- Zerbitzuko hezitzaileek eta taldearen koordinatzaileak barne koordinaziorako bilera bat egingo dute astero.
- Koordinatzaileak gazteria zerbitzuarekin bilera hamabostean behin egingo du.
- Hezitzaile taldearen eta gazteria zerbitzuaren arteko bilera 4 hilean behin egingo da gutxienez ebaluazioa aurkezteko.
- Beste egitasmo batzuk egiteko sarriago elkar daitezke gazteria zerbitzua eta gaztelekuko lan taldea.

Zerbitzuaren zabalkundeari dagokionez, zerbitzuari hasiera emateko eta udako aisia eskaintza berezia bultzatzeko kanpainak egingo dira urtero.

Beste batzuk

Memoria: zerbitzuaren memoria deskribatzaileaz gain, kontratuaren baldintzak betetzeari buruzko txosten bat aurkeztu beharko da urtero.

5.6. Funtzioak:

Hezitzaileen funtzioak:

Zerbitzuaren helburua lantzeko estrategiak martxan jartzea.

- Zerbitzuaren ebaluazio, jarraipen eta diseinuaz arduratzen diren bilgunetan parte hartzea.

- Zerbitzuaren funtzionamendu onaz arduratzea: ordutegia bete, garbitasuna eta txukuntasuna mantendu, erosi beharreko materialaren beharrak identifikatu, hainbat erregistro egunean mantendu (asistentziak, ekintzak…).
- Zerbitzuaren antolakuntzarako eta funtzionamendurako eguneko, hileko eta urteko planifikazioan elkarlanean aritzea
- Erabiltzaileen behar eta eskaerei jarraipena egitea.
- Zerbitzuaren egunerokoa ebaluatzea.
- Guraso, tutore eta beste gizarte eragile batzuekin harremanetan jartzea, nerabeei edo zerbitzuari loturiko gaiek eskatzen dutenean.
- Zerbitzua ezagutarazteko komunikazio estrategiak martxan jartzea.
- Gaztematika sisteman parte hartzea beharrezkoa denean.
- Aretxabaletako gaztelekuarekin harremanak izatea.
- Zerbitzuaren sare sozialak elikatzea nerabeekin ere sare sozialen bitartez harremana lantzeko.

Koordinatzailearen funtzioak:

Hezitzaileen funtzioez gain, honako hauek ere izango ditu koordinatzaileak:

- Hezitzaileekin batera, zerbitzuaren eguneroko, hileroko eta urteko planifikazioa egitea zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendurako.
- Zerbitzuaren planifikazioa burutzeko bitartekoak lortzea.
- Udaleko gazteria zerbitzuarekin koordinatzea, eta beharrezkoa balitz, beste sail batzuekin ere bai.
- Zerbitzuaren jarraipen eta ebaluazio txostenak entregatzea.
- Gaztematika sisteman parte hartzea eta Sistemako beste gaztelekuekin harremanetan egotea.

5.7. Arreta eta prestaketa orduak:

Gazteleku zerbitzuan hiru hezitzaile eta koordinatzaile bat egongo dira. Arreta zuzena ematerakoan bi hezitzaile egongo dira beti eta txandaka egingo dute lan.

5.8. Betebehar espezifikoak.

- Langileak kontratatzea eta gizarte segurantzan alta ematea.

- Hilabeteko programazioa gazteria zerbitzuari aurkeztea

- Sare sozialetan presentzia izatea eta sare sozialak elikatzea.

- Gaztematika Sisteman parte hartzea Udalarekin urtero noiz eta zertan parte hartuko duen adostuta.

6.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK.

6.1. Hizkuntza gaitasuna: Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, gaztelekuko langileek plegu honetako 7.1 klausulan adierazitako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna, eta horretarako, honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Dagokion ziurtagiria, titulua edo diploma aurkeztea, egoki den erakunde publiko edo zentro ofizialean egin eta emandakoa, edo
2. Udalak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Subrogazio kasuetan, langileek kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko hizkuntza-gaitasunik ez badute, beharrezko neurriak adostuko dira zerbitzu hartzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

6.2. Hizkuntza paisaia: Zerbitzua emango den lekuan, hizkuntza paisaia osatzen duten kartel, ohar eta gainerakoak euskaraz egongo dira.

6.3. Hizkuntza ofizialen erabilera

a) Nerabeekin eta herritarrekin:
- Nerabeekiko harreman oro euskaraz gauzatuko da, bai ahoz bai idatziz.
- Guraso edo bestelako helduekin lehen hitza euskaraz egingo da, eta hortik aurrera eurek aukeratutako hizkuntzan jarraituko da. Idatzizko harremanetan ere, eurek aukeratutako hizkuntzaren arabera jokatuko da, euskaraz edo ele bietan. Ele bitan eginez gero, euskarari emango zaio lehentasuna.

b) **Udalarekin:** Udalaren eta esleipendunaren arteko ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak euskaraz izango dira, izan harreman administratiboak (kontratu, faktura, ...), izan zerbitzua ematetik sortutakoak (koordinazio bilerak, urteko planifikazioa, jarraipen eta ebaluazio txostenak, gastu balantzeak, memoria, …)

7.- LANGILEEN BALDINTZAK

7.1. Nerabeei zuzendutako balio anitzeko zerbitzuko langileen subrogazioa egingo da plegu administratiboak jasotzen duen bezala, baina kontratazio berririk egin behar bada, langile berriek honako baldintzak bete beharko dituzte:

Hezitzailea bada:

1.-Titulazioari dagokionez, gutxienez, LHI edo batxilergoa izatea

2.- Aisialdiko monitore titulua izatea.

3.- Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko ahozko euskara maila egiaztatzea (agiririk izan ezean, Udalak berariaz prestatuko duen euskara proba egin beharko da, esleipen honetatik kanpo inolako baliorik izango ez duena).

Koordinatzailea bada:

1.- Antzeko lanetan esperientzia izatea.

2.-Titulazioari dagokionez, gizarte zientziekin zerikusia duen gradu bat izatea edo baliokidea izan daitekeen titulazioa izatea (magisteritza, pedagogia, gizarte hezkuntza, psikologia edo antzekoa) edo goi mailako lanbide heziketako baliokidea den titulua izatea.

3.- Begirale titulua izatea.

4.- Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko euskara maila egiaztatzea (agiririk izan ezean, Udalak berariaz prestatuko duen euskara proba egin beharko da, esleipen honetatik kanpo inolako baliorik izango ez duena).

7.2.- Kontratua indarrean den bitartean zerbitzua eskaintzeko bestelako pertsonala kontratatu beharra sor daiteke. Pertsonal hori gaztelekuko langileen figura ordezkatzeko denean, kontratatutako langileak titularraren baldintza berak bete beharko ditu.

7.3.- Enpresa esleipenduna arduratuko da langileen formakuntzaz. Dena den, Gaztematikak hezitzaileentzako eskaintzen dituen prestakuntzen gaineko informazioa emango da, eta bien artean adostuko dute urteko formazio plana.